



GERO TXOTX EGITEKO SAGARRAK BILDU BEHAR

Sagarrak biltzeko garaia da honakoa eta aurtengo uzta, gainera, oso oparoa izaten ari da >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-10-14**

VIII. URTEA 2.099. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



PROMOMUSIKA

SHANTI IRIBAR, 'SIRIUS MAGMA' LOBO ELECTRICOKO ABESLARIA

«Diskoa egiteko bidea nahiko gogorra eta mantsoa izan da»

TOLOSA 'Artefactos Magicos' izeneko lana kaleratu berri du talde tolosarrak

Pertsona gorrek dituzten mugei aurre egiteko astea

TOLOSA Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea antolatu du zazpigarrenoz Gainditzenek

ITSASO URKIZU ETA UNAI ONSALO MUNDIALEKO IRABAZLEAK

«Ezusteko handiena giroa eta tentsioa izan dira»

PILOTA Berastegiko eta Aresoko kirolariek gomazko paletan eta frontoi osoan irabazi dute



Jende ugari bildu zen atzo Tolosan ELA eta LABek deitutako manifestazioan parte hartzeko. R. CALVO

METALEKO 700 LANGILE KALEAN HITZARMENAREN ALDE

EKONOMIA ELA eta LAB sindikatuek grebara deitu dituzte Gipuzkoako metalgintza sektoreko langileak; atzo manifestazioa egin zuten Tolosan Adegiren jarrera gaitzetsi eta lan itun duina eskatzeko



LAGUNTZA: 2101 0044 45 0012707444 (Kutxabank)

www.uneairitsida.net

Egunerokoan mugak dituztela ohartarazi nahi dute pertsona gorrek

Gizartea » Antzerkiak, filmak eta erakusketak izango dira, besteak beste, Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astearen.

nitatearen Sentsibilizazio Astea. Batetik, izan ohi dituzten arazoak azaldu eta herritarrak sentsibilizatzea da jardunaldien helburua, eta bestetik, pertsona gorrek egiten dituzten lanak erakustea, antzerkian edota zineman, esaterako.

INIGO TERRADILLOS

Garaiak aldatuz doazen arren, oraindik ere asko dira pertsona gorrek eguneroko bizitzan aurki dituzketen trabak. Telebista ikustea edota medikuntza joatea bezalako ekintzak entzun dezaketek pertsonentzat aski arruntak izan daitezkeen bitartean, gorrentzat oztopoz eta zailtasunez beterikoak bilakatzen dira. Sarri, ordea, gainditu daitezkeen mugak dituzte, baina arrazoi batengatik edo besterengatik behin eta berriro egiten dute topo gorrek horrelakoekin.

Muga horiei irtenbidea ematea da Gaintzen Goierriko eta Tolosaldeko gormutuen elkartearen nahia, eta horregatik antolatu du zazpigarren urtez, Gorren Komu-

Ekitaldiak Tolosan eta Ordizian

Ekitaldi gehienak Tolosak hartuko baditu ere, Ordizian ere izango dira hitzaldi eta antzerkiak, bihar, hain zuzen ere. Tolosan egingo dituzten ekitaldien artean, larunbat honetakoak nabarmendu daitezke; goizean elkarteko kideak Tolosan izango dira, besteak beste Gorrotxategi museoan eta elkartearen egoitza berrian hamaiketakoak egiten. Arratsaldean, berriz, gorrek eginiko antzerkiak gozatzeko aukera izango dute, Leidorren. Horrez gain, bi erakusketa ere jarri dituzte, bata San Frantziskon eta bestea Fronton kafetegian.

Bestalde, jardunaldiakin amaitzeko, zeinu hizkuntzan eginiko film laburrak izango dira ikusgai.



Alberto Etxeberria Gaintzen elkarteko lehendakaria eta Julian Rodriguez elkarteko kidea. I. TERRADILLOS

» EGITARAUA

Urriaren 17ra arte

■ **Erakusketa.** San Frantzisko pasealekuan, egunerokoan gorrek komunikatzeko izaten dituzten trabak irudikatzen dituzten panelak jarri dituzte ikusgai.

Azaroaren 21era arte

■ **Erakusketa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek eginiko obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian.

Bihar, urriak 15 (Ordizian)

■ **10:00.** Jakintza ikastolan komunitate gorrari buruzko hitzaldia.
■ **20:30.** Herri antzokian Chaviren show-a eta ondoren, Arymux antzerki taldearen eskutik *Signos de mujer* antzezlan.

Etzi, urriak 16

■ **10:00.** Gorrotxategi konfiteri museora bisita. Ondoren, Zerkaurira joango dira, larunbateroko azokara ezagutzera, eta 12:00ak

aldera Gaintzen elkartearen egoitza berria bisitatuko dute, bertan jatekoa eta edatekoa emango dutelarik.

■ **17:30.** Leidor aretoan: Chaviren show-a, Arymux antzerki taldearen eskutik *Bailando el silencio* antzezlan eta Gipuzkoako Pertsona Gorren eskutik, *Hamlet* obra.

Azaroak 20, larunbata

■ **Jaialdia.** Zeinu Hizkuntzan egin dako Lehenengo Nazioarteko Film Laburren jaialdia, Leidorren.

Abesbatzen doinuetan murgiltzen hasteko aukera

ERREDAKZIOA

Tolosako Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa gainean dugun hontan Abesbatzen Topaketa kontzertuaren txanda iritsi da. Izan ere, lehiaketa hilaren 29an hasi eta

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baserria edo borda.** Baserria edo borda alokatuko genuke. Deitu 634 45 9110 zenbakira.

LANA

■ **Harrera.** Bidaniako Hotel batean, gaueko harrera-lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak, bidali curriculumak info@iriartejauregia.com helbidera.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu dezatela 600 86 95 04 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Dirua.** Duela 4 aste diru bat topatu nuen kalean. Galdu duenak deitu dezala 628 35 25 66 telefono zenbakira.



Kup taldea Tolosan entzutzeko parada izango da beste behin. HITZA

azaroaren leian amaituko da, eta emanaldi honek abesbatzen musikan murgiltzen joateko aukera emango du.

Kontzertua, urtero bezala, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu du «abesbatzen artean» ekintza bateratuak sustatzeko helburuarekin eta horretarako Tolosako Ekinbide Etxearen laguntza izan du.

Ekitaldian Gipuzkoako bi abesbatza eta Zaragozako abesbatza bat bilduko dira eta bakoitzak bere errepertorioa eskaintzeaz gain, guztiak elkarrekin abesti batzuk abestuko dituzte.

Xalba Ralloren zuzendaritzapean

Elkarren arteko kanta zuzentzeko urtero zuzendari bat gonbidatzen dute eta aurtengoan Xalba Rallo aukeratu dute. Parte hartuko duten abesbatzak Oreretako Abesbatza, Kup taldea eta Zaragozako Enchiriadis Abesbatza izango dira. Kontzertua etzi izango da, 20:00etan, San Frantzisko elizan eta sarrera doako izango da.

Egitaraua

Bi abesti kantatuko dituzte denen artean: *Soule* (J. Bello-Portu) eta *Madrigal* (J. Guridi). Kup taldearen egitaraua ondorengo izango da: *Warum toben die Heiden* (F. Mendelssohn), *Sanctus-Benedictus* (F. Martin), *Darthulas Grabesgesang* (J. Brahms), *Herbstlied* (F. Mendelssohn) eta *Jagdlied* (F. Mendelssohn). Orereta Abesbatzak, berriz ondorengoak abestuko ditu: *Laudate pueri dominum* (F. Mendelssohn), *Tancnota* (Z. Kodaly), *Alami* (J. Elberdin) eta *Euskal Jokaak* (J. Busto). Azkenik, Zaragozako koruak *O Virgo Splendens* (L. Vermell), *Noviori ani* (T. Jennefelt), *Sicut cervus desiderat* (G. Orban) eta *Danny boy* (K. Jarrret) kantatuko ditu.

@ **Gizarte sareak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA gizarte sareetan ere jarrai dezakezu. Facebooken, esaterako, 1.468 lagun ditu eskualdeko egunkariak, eta guztiak jasotzen dituzte eskualdeko berriak unean unean. Twitter sarean ere aurki dezakezu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Egin zaitzetez eskualdeko egunkariaren lagun eta jaso itzazu azken orduko albisteak seguitan. Argazki eta bideo berriak ere ikusteko aukera baduzu gizarte sareen bidez:

www.tolosaldekohitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

SHANTI IRIBAR, 'SIRIUS MAGMA' » Lobo Electrico taldeko abeslaria

Musika » Badira hamar urte Lobo Electrico taldea lehen aldiz eszenatoki batera igo zela. Eta zuzeneko bakoitzarekin jendea harritzeko prest dirau oraindik otsoak.

ANE SANZ

Lobo Electrico talde tolosarrak bigarren diskoa kaleratu zuen pasa den astean. *Sirius Magma* (Shanti Iribar) ezin hobeto ezagutzen du jaiotzen ikusi zuen taldea, eta *Artefactos Mágicos* disko berria dela eta, begirada atzera bota eta taldeaz hitz egin digu. Baina taldea ondo ezagutzeko, ez omen dago kontzertu batera joatea bezalakorik. **Lehenik eta behin taldearen izenaz hitz egitea gustatuko litzazidake. Nola bururatu zitzaizuen izena? Deigarria baita...**

Niri bururatu zitzaidan. Marihuana porro bat erretzen ari nintzen, eta irudipen moduko bat azaldu zitzaidan. Irudipen bat baino gehiago sentsazio bat izan zen, eta nik sentsazio horri forma eman nion. Otso batengorputza zen, otso elektriko bat. Eta hortik dator taldearen izena.

Beraz, lehenengo taldea osatu zenuen, eta ondoren izen bat jarri zenioten?

Bai. Taldea eginik zegoen. Lagunak Alegian zegoen etxe okupatu batean elkartzen ginen jotzeko. Pixkanaka taldea forma hartzen joan zen, ondoren izena jarri genion, eta apurka apurka aurrera ateraz atera zen.

«Zuzeneko pila bat egiten ditugu. Eskaintzen dizkiguten toki guztietara joaten gara»

Kontzertuei 'Noches de Esperma Negro' terminologiarekin egiten diezue erreferentzia. Ez da erdeizteko modu makala. Esanahi bereziren bat al du zuzentzat?

Kasu honetan ez irudipen bat, baikik eta sentsazio bat. Esperma esatean, haziaren zentzuan hartzen dugu, eta beltza... ba gauarekin eta lurrarekin erlazioetan dugu. Bi sentsazio horien nahasketatik dator izena.

'Sirius Magma', 'Perrolobo', 'Iki Peligro', 'Guanche'... Taldekideen izen artistikoak ere originalak dira.

Beno, hori joko bat bezala da. Pertsonaia bat sortzen duzu, eta pertsonaia horrekin jolas egiten duzu. **Pasa den astean zuen bigarren iraupen luzeko diskoa aurkeztu zenuen. Lan handia al du atzetan?** Nahiko gogorra eta mantsoa izan da bidea. Diskoan pentsatzen den bora asko generaman, baina hainbat gauza zirela medio, gerorako



PRMOMUSIKA

«Pertsonaia bat sortzen duzu, eta pertsonaia horrekin jolasten zara»

uzten joan ginen. Azkenik, zerbaitegiteko garaia zela erabaki genuen, eta single bat ateratu genuen 2008an. *Artefactos Mágicos* disko abestiak ere beraien artean nahiko ezberdinak dira; batzuk zaharrak direlako eta beste batzuk nahiko berriak. Taldeak aldaketak ere jasan ditu hasi ginenetik eta nabari da.

Azkenik nola, non, zenekin atera diskoa pentsatzen hasi ginen, eta azkenean guk ateratu genuen. 2009ko udazkenean grabatu genuen Castellonen. Guancheren (bateria) lagun batzuek estudioan.

Han grabatu genuen arren, nahasketa hemen egin genuen; Andoingo Garate estudioetan.

Erraza al da finantziarioa, estudioak eta abar lortzea?

Gure kasuan behintzat, ez. Han eta hemen begiratzen egon gara, baina guztiek berdina esaten dizute; zuk ordaintzeko eta beraiek egingo dutela. Eta horregatik erabaki genuen guk ordaintzea, eta guk egitea dena. Guk jarri dugu dirua; autoprodukzio bat da.

Abesti gehienak zuek konposatzen dituzte. Nola egiten duzue lan?

Bai, gehienetan guk egiten ditugu, nahiz eta disko berriko bat lehenagotik egina zegoen. Letra nik jarritzen diet ia beti, baina musika ez. Batek zati bat ekartzen du, beste batek beste bat, eta denon artean pixkanaka abestia osatzen joaten gara.

Nola erabaki zenuen zein aurkeztu single bezala?

Bideoklipa Aritz Morenok egin zigan, eta berari utzi genion aukeratzeko. Abestiak eman genizkion eta berak bat aukeratu zuen; kasu honetan, motzema. *Mutante* singleak 3 minutu irauten ditu, eta 6 minu-

» KONTZERTUAK

- **Urriaren 15ean, 22:30.** Infernu taberna (Iruñea), Sumision City Blues taldearekin.
- **Urriaren 23an, 21:00.** Balcon de la Lola (Bilbo), Los Frenosekin.
- **Urriaren 30ean, 22:30.** Zarauzko Gaztetxean, Mage Against the Rachine taldearekin.
- **Urriaren 31ean, 20:00.** Ibuots (Gazteiz), Las Gildasekin.
- **Azaroaren 20an, 22:30.** Kafe Antzokia (Ondarroa), Lau Monorekin.
- **Azaroaren 27an, 20:00.** Andoingo Gaztetxean, Surfín Kaos eta Las Culebras taldeekin.

tuko abesti bat aukeratzeko gero, lana doblea izango litzateke. Horregatik bakarrik izan ez den arren, pisu handia izan du aukeratzeko.

Bideoklipa eskuz egina da, eta interneten kritika oso onak jasotzen ari da.

Bai, Asier Morenok egin zuen osorik. Hasieran ideia beste modu batez egitea zen. Marrazkiekin ere, baina konplexuagoa. Horretarako jende gehiago behar zen, eta presuestoa disparatu egiten zen. Beraz azkenean horrela egitea erabaki genuen, eta oso kontentu gaudelanaekin. Primerakoa da.

Disko berria kaleratu ondoren, zuzenean jotzeko desiratzen egongo zarete. Zein kontzertu dituzue etorkizun hurbilean?

Zuzeneko pila bat egiten ditugu beti. Beti gaude jotzen. Batzuetan gutxiago, baina hilabeteen behin behintzat beti jotzen dugu. Deitzen diguten toki guztietara joaten gara.

«Internetek jende gehiagorengana iristea ahalbidetu digu, leiho handi bat delako»

Nola deskribatuko zenituzke zuen zuzenekoak?

Dibertigarriak, eta batzuentzat ikaragarriak ere. Baina batez ere, dibertigarriak. Nolakoak diren jakiteko, onena kontzertu batera joatea da dudarik gabe. Esperientzia bizitzea.

Japonian, Alemanian, Holandan, Londresen eta abar eman dituzue kontzertuak. Non gustatuko litzazidake jotzea? Bereziki norbaitek jotzea gustatuko litzazidake?

Akaso Mexikoko edo. Leku askotan... Niri berdin zait non jo, baita norekin konpartitu eszenarioa. Jatorrak badira, berdin zait. **Internet, lagun ala etsai?**

Guretzat, dudarik gabe, lagun. Internet gabe, zabalkunde txikiagoa izango zen. Guretzat oso lagungarria den leiho handi bat da; jende gehiagorengana iritsi ahal izateko bidea ematen du. Oraindik ez ditugu abesti berriak jarri, hala ere, baina jarriko ditugu.

Urte sasoi honetan ohikoa den moduan, sagarrak biltzeko garaia da. Aurten, sagarrondoek uzta bikaina eman dute. Sagarrak bildu ostean, hauen zukua atera eta kupelak betetzeko ordua da.

Nork jasoko esperoan

ENERITZ MAIZ

Sagardotegietako denboraldia beti urte hasieran hasten bada ere, sagardoa egiteko garaia iritsi da. Urtarrilean hasi eta ia maiatza bitartean sagardotegietan sagardoaz gozatu ahal izateko, sagardogileek orain dute sagardoa egiten hasteko garaia.

Gure herrietako sagarrondoak sagarrak eman eta eman ari dira. Aurtengoa, orokorrean, oso urte oparoa izango da. Dagoeneko lehen sagarrak bildu dira, eta baita hauen zukua atera ere. Baina oraindik bada sagarrak biltzeko lana eta noski, sagar zukuaren litroak eta litroak ateratzeko ere. Sagarrak bildu ahala, sagardoa egingo dute.

Sagarrez egindako edari alkoholdun hori, sagar zukua hartzituz lortzen da. Euskal Herriko betiko edari klasikoaren artean izan ohi da eta euskal gastronomian eta kulturean, egunerokotasun horrek leku berezia eman dio. Euskal Herrian edan ohi den sagardo mota, sagardo naturala da.

Sagar mota ugari erabiltzen dira sagardoa egiteko eta sagarra hiru zati ezberdinetan banatzen da: azala, mamia eta bihotza. Azala, sagarra estaltzen duen zatia da. Mamia, sagarraren zati mamitsua, hau da, sagarraren muztioa duten gelatxoez osatua dago. Eta bihotza, gehienbat pektinaz osatuta dago, eta bere barnean sagar haizak ditu.

Sagardo bat nolakoa den esateko, kolorea, zaporea eta usaina nabarmentzen dira. Muztioaren har-

tzidura bukatzen den unetik, sagardoa botilan sartzen den garaia arte, sagardoak heldu egin behar du. Irakinaldiak pasa beharko ditu eta horretarako hilabete batzuk pasa beharko ditu kupelaren barruan.

Urte batzuetan desagertzeko zorian egon ostean, 1980ko hamarkadatik aurrera Gipuzkoan sagardotegiak berriz ere modan jarri ziren. Baserrietan sagardoa beste diru iturri bat ere izan zitekeela ikusi zen. Zoritxarrez, antzina Gipuzkoan zeuden sagastiak jada desagertuak zeuden. Orain berriro, sagastiak ugaritzen hasi dira.

Izen handiko sagardotegiak Astigarra inguruan badaude ere, gurean daudenak ere ez dira gutxiago: Aduna, Abaltzisketa, Asteasu, Ikaztegieta, Leaburu eta Tolosan daude. Nafarroan gutxiago badira ere, Leitzan kasu, batzu-batzuk badira.

Alkizan sagardoa egiten ikusteko aukera

Intxurain Elkartearen eskutik, as-teburuan sagardoaren prozesua ezagutzeko aukera izango da. Horretarako, lehenik eta behin, larunbatean, sagarrak biltzera joango dira. 15:00etan, plazatik abiatuko dira. Igandean berri, mezaren ostean, Alkizako plazan sagardoa nola egiten den erakutsiko dute. Dolarea jarri eta sagarra txikituz, zukua aterako dute. Baina sagardoa egiten ikusteaz gain, zukua dastatu eta tripa betetzeko taloak izango dira. Giroa alaitzen laguntzeko, trikitilariak izango dira.



Aurten sagar ugari dago. Eskuz bildu daitezkeen arren, askok, kizkiekin biltzen dituzte sagarrak. E. MAIZ



Erori ahala sagarrak bildu ostean, tolarean txikitu eta zukua ateratzeko unea izaten da. E. MAIZ



Onena, Martin Zabalaren sagardoa

ADUNA ■ Ezkio-Itsason, pasa den astean, Sagardo Astea ospatu zuten. Igartubeiti baserrian, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen IX. Sagardo Lehiaketako irabazleei sariak eman zizkien. Aurtengo irabazlea, Adunako Zabala sagardotegiko Martin Zabala izan zen. Lehiaketa honetan eskuratu duen hirugarren saria izan da. Bigarren sailkatua, Hernaniko Al-tzueta sagardotegiko Juan Goikoetxea izan zen eta hirugarrena Astigarragako Astarbe sagardotegiko Jose Manuel Astarbe izan zen. ESTITXUMAZ

Metaleko langileek hasi dituzte greba egunak

Ekonomia » 700 bat pertsonak hartu zuten parte atzo Tolosako kaleetan zehar eginiko manifestazioan.

ERREDAKZIOA

Atzo izan zuten lehen greba eguna Gipuzkoako metalako langileek. ELA eta LAB sindikatuek zazpi greba egun deitu dituzte (atzo, gaur, bihar eta azaroren 2, 3, 4, eta 5ean) eta Gipuzkoako enpresa nagusiek egin dute bat grebarekin, baita Tolosaldean ere, asko baitira metalako enpresak gurean, horien artean Voith, Guibe, Bost, Etxesa edo Lantier.

Lanuzteekin batera hainbat mobilizazio ere egingo dituzte ELAk eta LABek deituta. Lehenengoa atzoko manifestazioa izan zen. Tolosako Trianguloa plazatik abiatu ziren eta 700 bat pertsona bildu ziren. Tolosakoarekin batera Eibarren ere egin zuten atzokoan manifestazioa. Gaurkoan aldiz, Beasainen eta Hernanin egingo dituzte manifestazioak 11:30ean eta bihar, Donostian egingo dute mobilizazioa ordu berean.

Tolosako manifestazioa

Trianguloa plazan 700 bat pertsona bildu ziren atzo sindikatu aberzaleek deitutako manifestazioan parte hartzeko. Tolosan egiten ari diren lan desberdinak medio ohikoa baino ibilbide luzeagoa egin zuten berriz ere Trianguloara bueltatu baino lehen.

Tolosako plazara iristerakoan sindikatuetak metalako eskualdeko arduradunek hartu zuten hitza. Bertan, metalako hitzarmenaren negoziazioa duela 10 hilabete hasi zela gogoratu zuten eta baita «akordiorako aukerarik gabe jarraitzen» dutela ere. «Negoziatzen hasteko bidea zabaltzen zela zirudienan, Adegiri berriro ere jarrearik berekoiena atera zaio eta negoziatio mahaitik altxatu da Benetan akordioa nahi badu, hitzarmena egotea nahi badu, guztiz ulertezina da hartu duen erabakia», nabarmendu zuten.

Era berean, Adegik azken bi asantean izandako jarrera salatu zu-



Metaleko langile asko bildu ziren atzokoan Tolosan manifestazioan parte hartzeko. R. CALVO

ten eta horregatik patronalak «hitzarmena nahi ote duen edo ez» galdetzen diote sindikatuek euren buruei.

Gaurkoan Hernanin eta Beasainen izango dira manifestazioak, biak 11:30ean hasiko dira

Bihar, berriz, Donostiako Boulevardetik irtengo da mobilizazioa ordu berean

«Egungo hitzarmena goitik behera aldatuko lukeen proposamena mahai gainean jarri ekin zion negoziatioari, eta gaur egun bere horretan jarraitzen du. Badaki proposamen horrekin akordiorako ate guztiak ixten dituela. Orain berriro negoziatzen jarraitzeko aukera sailhestu eta mahaia blokeatu du», gaineratu zuten.

Adegiren jarreararekin talka egingo du langileen nahiak, izan ere,

hauek hitzarmena nahi dutela argitu zuten sindikatuek. Horiek horrela «grebak ez dira gure helburuak, gure eskubideak defendatzeko tresnak baizik. Gipuzkoako hitzarmenaren izatea bera da jokoan dagoena. Erronka handia aurrean duguna, gogor borrokatu beharko duguna. Grebekin jarraitzea beste biderik ez digute uzten», esan zuten.

Horregatik egin zieten dei langileei egun hauetan izango diren pikteteetan, mobilizazioetan eta bestelako ekitaldietan parte hartzera. «Argi dago grebek mina egiten diotela Adegiri-esan zuten-. Orain bere erronka grebetan kale egin dezagun da, ahul ikusi nahi gaituzte, langileengatik jasotzen dugun indarra negoziatio mahaian ez dadin sindikatuon aktiboa izan».

«Orain arte eman dugun erantzuna emateko gai bagara, ekarriko ditugu berriro ere negoziatio mahaira eta derrigortuko ditugu akordioak bilatzera. Borroka gogorra da, pultsua aguantatzeko gai bagara hitzarmena dugu irabazteko», gaineratu zuten.

Laburrak

Elkartasun Kontzertua bihar, 23:00etatik aurrera

VILLABONA • Villabonako Euskal Herrian Euskaraz taldeak Elkartasun Kontzertua antolatuta du bihar. Ze Esatek eta Never Surrender taldeek eskainiko dute kontzertua 23:00etatik aurrera Villabonako plazan eta sarrerak bost euro balio du. Euria egin ez gero kontzertua Amasako pilotalekuan egingo dute.

Helduentzako pilatesen izena emateko aukera

ADUNA • Adunan helduentzako pilates ikastaroa antolatuta dute. As-tearte eta ostegunetan izango da eta bi orduz daude: 09:30etik 10:30era eta 17:00etatik 18:00etara. Gehienezko prezioa 24 euro izango da. Izena eman nahi dutenek Aitzondora deitu behar dute (943 639 30). Bihar da azken eguna.

Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelkoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berriztatze ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argiakia handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, iria D'Ne+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektarren eskutik.

elektra
www.elektragalauak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info Aukerazazu, **BIZIEUSKARAZ**, **berria**

E Elkarrizketa

ITSASO URKIZU ETA UNAI ONSALO ▶ Mundialeko irabazleak

«Tentsioa eta publikoko giroa izugarria da han»

Pilota » Urrezko domina lepoan dutela itzuli dira Pauetik, Munduko Euskal Pilota Txapelketatik, eskualdeko pilotariak; biek ere final gogor bati egin diote aurre.

ESTI EZEIZA

Hamar egun Pauen (Frantzia) iganero otean, irribarrea ahoan, eta urrezko dominak lepoan dituztela itzuli dira etxera Itsaso Urkizu (Berastegi, 1986) eta Unai Onsalo (Areso, 1985). XVI. Munduko Euskal Pilota Txapelketan lehiatu dira biak ere, Lizartzako Nagore Arozena eta Tolosan bizi den Unai Arozena venezuelarrarekin batera. Lehendabizikoa trinketeko gomazko paleta modalitatean, eta bigarrena, frontoi osoan, eskuz banaka.

Orokorrean, zer moduz joan da? Esperientzia ona izan al da?

Itsaso Urkizu: Oso ondo joan da, izan ere, partidaguztiak irabazi ditugu. Hasteko, ligaxkan, lehendabiziko partida Frantziako selekzioaren aurka jokatu genuen, guretzat bera zen aurkaririk gogorrena, eta honi irabaztea lortu genuen. Horregatik, hau eta gero,

konfiantza hartu genuen, eta hurrengo partidak lasaia jokatu genituen eta gustura.

Unai Onsalo: Oso esperientzia polita izan da. Hasieratik, han, nabaritzen da ez dela hemen jokatzera bezala, presioa izugarria da. Publiko gehiagorekin jokatzeko duzu. Baina, bestetik, luze egiten da, egun asko dira.

Pilotalekuan ordu gehiegi.

U. O.: 12:00ak aldera joaten ginen pilotalekura, eta 22:00ak aldera itzuli hotelera. Pilotak besterik ez genituen ikusten egun guztian.

Mundialean, presioa izugarria dela diozue.

U. O.: Hemen, bakoitzak bere buruari sartzen dionaren arabera da presioa. Baina han, selekzio batekin ari zara jokatzeko, eta zure emaitzek besteengana eragin dezake. Horregatik, gauzak asko aldatzen dira hemendik hara.

Zuretzat gainera, Unai, finala bikoitza zen, selekzioaren garaipena zure esku baitzegoen.

I. U.: Azken bi finalak irabaziz gero bagenekien irabazten genuela. Horregatik, izugarritzko tentsioa zegoen. Gainera, presio horrek berak, asko nekatzen zaitu.

Biontzat ere finala oso gogorra izan zen.

I. U.: Finalean gaizki hasi ginen, baina gero buelta ematea lortu genuen. Finalaren tentsioa eta presioa zela eta, lehendabizi, nire atzelari jarri zen urduri, eta ondo-



HITZA

H Hilberriak

MARCIAL CARRERA ARRIETA

JAUNA

Urriaren 13an, asteazkena, hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Emaztea: Pilar Fraile; seme-alabak: Jose Luis eta Candi, Arantxa eta Tabi, eta Ander eta Kontxi; bilobak: Ibai, Urtzi, Jone, Iría eta Asier; enai-arrebak, ezkon anai-arrebak, llobak, lehenegusak eta gainerako ahaidiak.

Haren arimaren alde otolitz bat eskaltzen dizuet eta arren etor zaitezte gaur, urriak 14 osteguna, arratsaldeko zazpitan Jasokunde Amaren parrokian egingo den hiletara.

Aldiz aurretik, mila esker.

OHIARRA: Hilbela Zentrolenen egongo da, gaurko 15:00ak arte.

ORERETA, 2010eko urriaren 14an

ARANTXA DE LA CRUZ MAGRO

Ez agurrik
Ez adiorik
Gero arte baizik

Alkartasuna Lizeoa Herri Ikastolako
guraso, ikasle eta irakasleak

BEASAIN
2010eko
urriaren 14a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN

ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA

902 402 900

ren ni. Ondorioz, 25-17an jarri ginen galzten, abantaila handia atera zigutelarik. Gero, partida aurrera joan ahala, konfiantza hartzen hasi ginen, eta markagailuari buelta ematea lortu genuen. Hala, zorte handiarekin, azken tantoa guretzat izan zen, eta 29-30 irabazi genuen.

U. O.: Finala oso gogorra izan zen, erritmoa oso bizia izan zen, eta 22-20an amaitu genuen. Nik behintzat leher eginda amaitu nuen.

Aurreikuspenak bete dira, ezta? Favoritotzat jotzen zenituztenak izan dituzue aurkari finalean.

I. U.: Bai, Frantziarekin jokatzan duten pilotariak lehenagotik ere ezagutzen genituen, eta gure ustez maila altuena zuten. Gainontzeko partidak ere zailak izaten dira, desberdin jokatzan dutelako, baina hala ere, beraiak dira gure pareko ibiltzen direnak.

U. O.: Joaterako, banekien Mexiko zela faboritoa, eta gero, finalean ikusi zen, zerbaitengatik zela horrela. Medina oso pilotari gogorra da. Badirudi geldoa dela, eta ez delagehiegia mugitzen, baina airez eta errekurso ugari ditu, eta asko ibilarazten zaitu, nekatuaz.

Estatu batetik bestera, jokatzeko modua asko aldatzen al da?

I. U.: Bai, dezente. Esaterako, mexikarrek guk erabiltzen ez ditugun efektuak ematen dizkiete pilotari. Argentinarrak ere desberdin jokatzan dute, eta horrek nahastu egiten du.

U. O.: Eskuz banaka ere, gauzak aldatzen dira. Estatu batuarrek eta Frantziarekin jokatzan dutenek gu bezala jokatzan dute, eta maila berdintsua dute. Baina esaterako, harritu nau, Mexikoko mailak, han afintzo handia baitako, eta selekzio oso indartsua baitute.

Frantziako selekzioak, beraz, aurkari gogorrenak, baina aldi berean, gertukoak.

I. U.: Iparraldekoak dira gehienak eta txapelketa asko jokatu izan ditugu. Guretzat lagunak ere badira, eta konfiantza daukagu elkarrekin. Horregatik, pena ere ematen zuten haien aurka lehietzak.

Garaipena bereziagoa izango da finala zuk jokatu duzunean, ezta?

I. U.: Bai, desberdina da finala barritik ikustea, eta ez kanpotik. Ilusio handiagoa egiten dizu garaipenak. Gainera, aurkariak onak bal-

din badira, are eta gehiago.

U. O.: Zalantzarik gabe bereziagoa da. Kideak irabazita ere, gustura itzuliko ginen, baina garbi dago zuk jokatzan gero finala, zu bizitzen ari zaren hori, kanpokoarentzat ez delaberdira.

Zu Unai, beldur zinen behatz potoloak nola erantzungo ote zizun, baina dirudinez, ongi ezta?

U. O.: Beno, ez horren ongi. Neurriara egindako eskaiola batekin bazbestuta jarri zidaten, eta horrekin jokatu ditut partida guztiak. Hone-la, hasieran bai, ongi ibili nintzen, baina azken partidari pare bat kolpe eman nizkion, eta berriro, nahikoa izorratuta ekarri dut.

Eta orain, jokatzeko moduan izango al zara?

U. O.: Orain, bi astetan behintzat atsedena hartuko dut. Hortik aurrera hasiko gara berriro partidak jokatzan. Behatzagatik nahiz beste zenbait arrazoigatik hartu nahi dut atsedena. Horrenbesteko presiopean egon ostean, beharra sentitzen duzu.

Lehendabiziko Mundial hau, esperotakoa bezala izan al da?

U. O.: Maila altua izango zela banekien. Frantziarekin eta AEBekin jokatzan zutenak ezagutzen bainituen. Espero ez nuena zen, topatu dudana, giroa eta tentsioa. Hori izan da ezusteko handiena.

Itsaso, zuretzat bigarren Mundiala izan da. Aldaketarik sumatu al duzu batetik bestera?

I. U.: Munduko Txapelketak gehienetan berdina izaten dira, tentsio handikoak eta maila oso altukoak. Irabazi beharra dago eta presioa oso handia da, ez da hementengo Txapelketa bat bezala.

Ez dituzue partida denak jokatu, baina bai gehienak.

I. U.: Frantziaren aurkako lehendabizikoa nik jokatu nuen, baita Uruguairan aurkako finalaurrekoa ere, eta azkenik, finala. Nagorek berriz, gainontzeko biak jokatu zituen, hau da, ligaxkakoak. Finala oso entrenatzaileak erabaki zuten txapelketa nola joan zen ikusi eta gero, bukaeran.

U. O.: Nik bakarra utzi dut jokatu gabe. Ligaxkako lehendabiziko partida, nire kideak jokatu zuten. Nire kasuan, entrenatzaileak hasieratik esan zidan titularra izango nintzela, eta gauzak ongi joanez gero, finala nik jokatu nuela.

Itsaso, zure kasuan, garaipen hau esanahi handikoa da. Izan ere, datorren urtean ez duzu pilotarekin jarraitzeko asmorik, ezta? Eta zuretzat, Unai?

I. U.: Datorren urtea lasai igarotzeko asmoa dut. 10 urte daramatzat honetan, eta jada nekatuta nago. Datorren urteko lehendabiziko txapelketak behintzat, ez jokatzera erabaki dut, eta aurrerako ikusiko dut, jarraitu edo ez. Dena den, nire aldetik ibiliko naiz ziurrenik.

U. O.: Hara joan aurretik, nioen, beste edozein Txapelketa bezala zela niretzat, baina hura dena ikusi eta gero, Txapelketa arrunt bat bezala ez dudala bizitu esan dezaket. Tentsioa eta publikoan sortutako giroa izugarria zen, ez dut beste inon ezagutu horrelakorik. Era berean, beste partidekin alderatuz, askoz ere gehiago gozatu dut, eta Txapelketa garrantzitsu bat dela esan dezaket.

Batzuen esanetan, komunikabideetan oihartzun handiagoa izan dute mutilen norgehiagokek, neskenek baino. Horrela izan dela uste al duzu?

I. U.: Ez dakit, baina egia da, hementrinketea oso gutxi ikusia dagoela. Are eta gutxiago, emakumezkoena. Ez dago oso zabaldua eta hori nabaritzen da. Hemengo egunkarietan, oro har, oso gutxitan agertu gara, baina baita trinketean dabilzen mutilak ere.

Nola ospatu zenuen garaipena.

I. U.: Guk, larunbatean, gure partida jokatu eta gero parrandatxo egin genuen, baita hurrengo egunean ere, Mundiala amaitu eta irabaztean.

U. O.: Dena amaitu zenean, kanpogan jarri zuten karpara joan ginen pilotari guztiak eta bertan ospatu genuen. Hala ere, ni oso nekatuta nengoen, eta garaiz erretiratu nintzen.

Garaipena nori eskaini al diozue?

I. U.: Inori zehazki ez, baina lagunak eta familiakoak hara joan ziren, eta hori asko eskertu genuen.

U. O.: Nire amona Lourdesi eta Areso nahiz Berastegiko herriki-dei eskaintzen diet.

Irabazitako urrezko domina non gordeko duzue?

I. U.: Hori etxean geratuko da, txokoren batean, ondo-ondo gordeta.

U. O.: Gainontzekoak gordetzen ditudan leku berean gordeko dut.

Ipar Euskal Herrira antolatu du hurrengo mendi irteera Sagainek

Asteasu » Udako oporraldiaren ostean hilaren 24rako prestatu dute txangoa; izena emateko epea zabalik da.

ERREDAKZIOA

Udan atsedenditoxoa egin ostean, indar berriak hartuta, berriro martxan da Sagain mendi taldea. Hala, hasi berri den ikasturteko lehen irteera antolatu du. Hau datorren asteburuan izango da, hau da, hilaren 24ean. Ipar Euskal Herrira egingo dute txangoa, eta Bidarra, Itsusi eta Dantxarinea bisitatuko dituzte.

Bidarra Nafarroa Behereko udalerrria da, eta Baigorri-Ortzaize eskualdean kokatuta dago. Itsusi-

ko harkaitzak 629 metrotarra, Baztanen daude kokatuta. Nafarroan putreen bilgune nagusi da eremu hau.

Hilaren 17an, 07:30ean aterako da autobusa Asteasuko udaletxearen aurretik. Mendi irteeraren zailtasuna erraza bezala jotzen dute. Denera, sei ordu eta erdiko iraupena izango du batz beste. Iluntzean itzuliko dira eskualdera.

Irteerara joan nahi dutenek hilaren 21a baino lehen eman behar dute izena Asteasuko Kiroldegira joanda, edo 943 69 34 00 telefono zenbakira deituta. Prezioa honakoa da, 12 urtetik beherakotzat, bost euro eta gainontzeko entzatzat, 10.

Bestalde, Sagain elkarteak kideak jada hasiak dira azaroan ospatuko den mendi astea antolatzen.



Ipar Euskal Herriko paraje ederrenetako batzuk bisitatuko dituzte. HITZA



Liburua: 25€
DVDa: 15€
Liburua + DVDa: 30€

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:
943-30 43 45
harpidetza@berria.info

aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua
20400 Tolosa

DENAK
taberna
2x1 eskaintza

Astelehenetik ostegunera ogitarte koetan
2 pertsonentzako 2x1 eko eskaintza

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, aurretik tabernara deitu dezala joango dela esateko
- Kupoiatz gain, harpidedun txartela ere eraman behar da
- Eskaintzaren iraungitze data, 2010eko abenduaren 31

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**

Izen - Abizenak:.....
Harpidedun kodea:.....
Erreserba eguna:.....



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Ares, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** 18:00etan Benito Izagirre kultur etxean ipuin kontalari saioa Ines Bengoak zuzenduta eta 3-5 urteko haurrei zuzenduta.
- **Tolosa.** Aparteko Osoko Bilkura udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean. Oroimen historikoari buruzko mozioa izango da batzarrean Udalbatzak eztabaidatuko duena.
- **Tolosa.** Urriko azken larunbateko kantu-jirarako entsegua gaur izango da, 20:00etan hasita, Musika Eskolan. Euskal abestiak kantatu eta ikasi nahi duten guztiak ateak zabalik dituzte. Hurrengo entsegua hilaren 28an izango da.

Erakusketak

- **Tolosa.** *Inestable* GKo Galeriararen eskutik ikusgai, Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** *Ertza* erakusketa GKo Galerian ikusgai.

Kultur Astea

- **Tolosa.** Kultur Astea San Esteban auzoan: 19:00etan VIII. Patata Tortila Lehiaketa, ondoren, luntxa; 22:30ean *Las punkis también lloran* antzezlan Detritus Teatrusen eskutik.

Zinema

- **Tolosa.** *Una luz en el hampa* filma jatorrizko bertsoan Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine foru-maren barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 3274.
- **Irurzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 948 56 42 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 948 51 31 28.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Herbehereetako ikasleen bisita

TOLOSA ● Orixe institutuak Herbehereetatik etorritako bisitariak ditu aste honetan. Hain zuzen ere, lurraldearen hegoaldean kokaturiko Limburgh eskualdeko Horn hirian dagoen Sint Ursula ikastetxeko 26 ikasle eta bi irakasle iritsi ziren gurera pasa den larunbatean, hilaren 9an, eta etzi itzuli-ko dira euren etxeetara. Beraiek gurera etorri diren bezla, apirillean Ori-

xeko ikasleak izango dira Herbehereetara joango direnak. Elkartruke batetik haratago doan proiektua ari dira burutzen, eta lurralde bakoitzaren kultura, gastronomia edota ohiturak ondo ezagutu ostean bi ikastetxetako ikasleen artean film bat egingo dute. Atzokoan, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak egin zien harrera Herbehereetako gazteei. ir.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: